

OLABARRI- ERDIGUNEA AUZO BATZARRA

Hogei herritar hurratu dira Igorreko kultur etxean egin dan aurkezpenera. Bi logotipo aurkeztu ditu alkateak, Igorreko Herria, danon aukera eta Igo aurrekontuetara, auzoz auzo, pausoz pauso.

Diru sarreren atalean %36 tasak eta inpuetuetatik datoz, %45 bitarteko garan diru laguntzak, %13 obratarako diru laguntzak eta %6 beste diru ekarpen batzuk.

Gastuen atalean, %35 gastu fijoak, %23 soldatak, %30 obretan, % erakundeei aportazinoak eta % 4 besteak.

Olabarrin topau diran gabeziak: Eskoletako aterpea eta pasarela, jarlekuak apurtuta, bide zaharra oinezkoentzat ez izatea, kiroldegiko konponketak ez egitea.

Beheko plazan topau diran gabeziak: Iturria eta baldosak apurtuta, San guanera bidean oinezkoen bidea txarto, oinezkoen futbol zelaian inguruko ibilbidea.

Erdinegunean, espaloiak errespatarazotea, barandillak aldatu, dimarako bide gurutzean errotonda bat egitea, BBK aurrean oinezkoen pasozebra bat egitea, Kontenedoreentzat lekue topetea, bigarren filan aparkatzea eragozte.

Agarretik gora farolak falta dira, muleirarte faltan dagoz, norabide bakarra elexalde kalean osoan, aparkaleku barria jubilatuen osteko partean, parkeko farolak aldatzen joatea, gauetan argitasun gitxi korreosen aurreko azeran eta 105ean.

Aparkaleku gune barrie kultur etxeko parkearen amaieran, bedar guneak txukundu, kamioiak herritik ateratzea eta motorrak oinezkoen bidetik ez ixtea pasetan.

Ongizate eta bardintasun zinegotziak hartu dau berba. Arlo sozialean inbertidu beharra adierazo dau, bardintasunaren inguruko diagnostikoa egin zan, Igotrans ekimena martxan ipini zan, auzotarrak erdiguneagaz konektatzeko eta bardintasun planaren barruan indarkeriaren kontrako protokoloaren beharizana azpimarratu dau, teknikari baten kontratazinoa bideratzeko asmoak azalduz datozen aurrekontuetarako. Udal mailako

teknikaria planteetan da eta ez mankomunidadeari itxaroten egotea esan deuto herritar baten galderari erantzunez.

Herritarrek planteetan dabezan alternatibak bizikleta eta oinezkoentzat Orobi inguraino luzatzea bidea, holan errazagoa dalako. Oinezkoentzat ahalik eta lekurik gehien ahalbidetzea eskatu dau herritar batek. Bide gorriak egitea eta garatzea eskatu dau herritar batek. Hiru bide eta hirurak eskolara heltzea izango zan helburua. Lasarte parkeko kolunpioak konpondu beharra. Bizikletak behar dabela preferentzia herri barruan dino beste herritar batek.

Plan orokorrean onartuko dan zeozer dala esan dau alkateak.

Dimarako bidean egingo dan autobusari geralekua topau behar jako.

Zebrabidea hain urrun be ez dagoala adierazo dau herritar batek.

Lokalen gaian herritar batek hartu dau berba. Alkarbizitza oso gatxa dala adierazo dau, zarata, zikinkeria, Gazteak ea lokaletik ateratea dan galdetu dau herritar batek baina ezetza adierazo dau alkateak. Gazteeri geratzen jaken alternatiba bakarra dala esan dabe, betebeharrak eta eskubideen arteko urtenbidea topau gura da udaletik, adostasunaren barruan arautu behar dala esan du herritar batek.

Horman garbitasunaren gainean panel gehiagoren aldeko jarrera adierazo dau alkateak.

Argazkiak erakutsi dauz herritar batek zikinkeria erakusteko. Erreka, zaborren ontzia, Erreka garbiketa institutuagaz batera egitea proposatu dau, bertako ikasleek zikintzen dabelako.

Merkatariek kexa handia adierazoten dabe, kotxeak dagozalako azera ganean eta ia denda portaletan 105 inguruan.

Fibra optikoa udea auzora heltzea. Futbol zelaiko aisialdi gunerako aterpetxo bat eskatu dabe.